



GEURIEN ZER? Herriko elkarteak zertan diren

BESALDE

Gure elkarteak zortzi bat urte daroaz Sahararen aldeko lanetan. Urtero bi kanpaina handi egiten doguz: oraintxe amaitu dogun *Sahararen aldeko V. Euskal Karabana: Piztu Itxaropena* da urteko lehenengoa; bigarrena *Oporrak Bakean* ume saharaiuen etorreragaz. Horrez gain, sentsibilizazio-kanpainak bere egiten doguz, aitatutako kanpainen tartean: hitzaldiak eta dokumental-emanaldiak, argazki-erakusketak....

Dagoeneko ezagunak gara herrian eta denek dakite zer egiten dogun. Horregatik, oso ondo erantzuten dau herriak, esate baterako, aitatu dogun *Euskal Karabanako* kanpainako janari-bilketan: oraintxe bertan amaitu dogu eta zehatz-mehatz ez dakigu zenbat kilo batu doguzan, baina uste dogu 4.000 kilotik gora izango dala (laster izango dozue horren berri). Gaur eguneko egoera ekonomikoa ikusita, herriak ezin hobeto erantzun dauala esan geinke. Aitatzekoa da aurtan Mundakakoekin eta Busturikoekin batera egin dogula janari-bilketa.

Gure kanpainen helburua argia da: euren herritik erbesteratuta dagoan saharar herriari laguntzea, janariak-eta bidaliz eta uda-sasoian umeak hilabete birako ekarriz.

Gogoan izan behar dogu honek 33 urte daroazala, bere lurraldetik kanpo, Argeliako hamadan edo desertuan, ezer barik, goian zerua eta behean lurra, beste barik. Neguan hotz eta uda-sasoian 55° C bere hartzen dabez Hau erraz esaten da, baina hori bizi egin behar da.

Horregatik, hango umei hona ekarrita, "hai-zea" emoten deutsegu: elikadura ona, azterketa medikuak (analisiak, asma, ikusmena...), tenperatura ona eta ZORIONA, alaitasuna, badakizue, *umeak ume han eta hemen*: hondartza, bizikleta, fruta, mantekauak, marrazki bizidunak, kolorinak... Hori guk, baina eurek bere asko emoten deuskue guri: oso maitakorrak (kariñosuek), alaiak, esker onekoak dira. Pozik etorten dira eta pozik joaten dira. Familia bi daukate: bertakoa, eurena, eta bertakoa, geurea.

Horixe da gure zereginak; batetik, jendeari jakinaraztea hango egoera zein den eta, bestetik, hangoei laguntzea. Eta, jakina, jendea animatzea horrelakoetan, ahal dauan neurrian, parte-hartzen.

**ELKARTEA
BESALDE**
(Bermeo Sahararen Alde)

JARDUNA
Sahararekin zerikusia duten
elkartasun ekimenak
martxan jartzea

BAZKIDEAK
10-15

HARREMANETARAKO
615 004 494

Egizu, erreza da eta!



ELHUYAR HIZTEGIA SAKELAKO TELEFONOAN

Donostiako Euskararen Udal Patronatuaren ekimenez, eskuko telefono erabiltzaileek, Euskal Herrikoek zein Diasporakoek, **euskara-gaztelania / gaztelania-euskara** hiztegia jaso eta erabili ahal izango dute euren mugikorrean. Horretarako egin behar duten gauza bakarra Hiztegia hitza SMS bidez 5464 zenbakira igortzea da, aplikazioa jaitzi eta telefonoan instalatu. Hiztegi hau Elhuyar hiztegiaren oinarrituta dago, euskaraz edo gaztelaniaz nabigatzeko aukera eskaintzen du eta 8.000 sarrera ditu.



TELEFONOAK BADAHI EUSKARAZ. ANIMA ZAITEZ!

Telefonoa euskaraz konfiguratu nahi duzu? Hemen aurkituko duzu telefonia enpresek eskainitako informazioa, hizkuntza aukeren artean euskara ere badaukaten telefonoen zerrenda dakarrena.

Eusko Jaurlaritzak eta hainbat telefonia operadore eta fabrikatzaileek lankidetzarako bi hitzarmen marko sinatu zituzten 2007an, telefonia mugikorraren arloan euskararen erabilera sustatzeko. Hauek dira hitzarmenak sinatu zituzten enpresak: Alcatel, Eroski, Euskaltel, Nokia, Orange, Samsung, Sony Ericsson, Telefónica, Vodafone eta Yoigo.

Hitzarmenetan aurreikusitako konpromisoak betetze aldera, Eusko Jaurlaritzak abian jarri du telefonia mugikorraren arloan euskararen erabilera sustatzeko publikitate kanpaina, "Telefonoak badaki euskaraz. Anima zaitez!". Horrekin batera, menuak euskaraz ere eskaintzen dituzten telefonoen zerrenda osatu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, telefonia-enpresek emandako informazioaren arabera. Helbide honetan duzue zerrenda: <http://www.euskara.euskadi.net>



PUNTUEUS ELKARTEA: .EUS DOMINIOAREN ALDE

Euskarak erronka berri bat du: Interneten bere izen propioa sortzea. Interneten, izena eta izana elkarrekin baitoaz. Interneten, izenik ez duena, ez da. Eta hori da euskararen eta euskal kulturaren komunitatearen erronka berria: Interneteko eremu birtualean nazioarteko aitopena eskainiko dion ikur edo sinboloa sortzea: .EUS domeinua.

Horretarako sortu da **PuntuEus Elkarte**a, .EUS domeinua eskuratzeko. Ekimen honen inguruko informazio guztia eta proiektuarekin bat egiteko aukera elkartearen webgunean: www.puntueus.org.



SMSAK EUSKARAZ IDAZTEKO DEKALOGOA

Hauek dira mezuak bidaltzerakoan aintzat hartu beharreko 10 arauak:

1. Ez dago araurik. Hizkera berri honetan denak proposamenak dira. Baita hemen agertzen direnak ere.
2. Ulertzen den guztia balekoa da.
3. Hizkera hau kolektiboa da. Denon artean asmatu eta eraiki behar dugu. Areago, mezuak euskaraz bidaltzen ditugun neurrian sortuko da.
4. Ahalik eta pultsazio gutxien erabili.
5. Bokal gehienak soberan daude. Gehienetan, kontsonanteen bidez uler genezake hitza (skrrisk = eskerrik asko).
6. "H" a ez da ia erabiltzen, akronimoetan ez bada (HEHBS = "Hi ez hago burutik sano").
7. Zenbakiak eta zeinuak nola ahoskatzen diren, hala erabili (2ar = bihar).
8. Batua eta euskalkiak, denak dira baliagarriak. Berba egin, hitz egin, elestatu edo mintzo zareten bezala idatzi. Eta zuena, bestearekin aberastu (J2x).
9. Maiuskulak hitzak nabarmentzeko erabiltzen dira.
10. (OIUK AI ZTE! = "Oihuka ari zarete"). Ongi pasa eta gutxi gastau! **Zazpiak Batman kolektiboa**

2. zenbakia | 2009ko negua



Elkarteekin lanean

Egitasmoaren balorazioa, oro har, positiboa izan zen, baina une honetan dau den **hainbat arazo** eta kezka ere agertu ziren:

Urtero legez, herriko elkarteekin hartu-emanak estutzeko eta elkarren berri izateko, jardunaldia antolatu genuen azaroan. Jardunaldia hausnarketa-saio moduan aurkeztu genuen; izan ere, helburua **Geurien be bai** egitasmoan orain arte egindako lana baloratzea eta aurrera begira eman beharreko pausoak konpartitzea zen.

Guztira 7 elkartetako 12 pertsona etorri ziren batzarrera: Arraun Elkarte; Bermeoko Ehiza, Arrantza eta Tiro Elkarte; Bermeoko Futbol Taldea; Barrueta Arte Elkarte; Besalde (Bermeo Sahararen alde); Erroxape Emakume Elkarte; Batun-batun (begirale elkarte).

Bai kirol taldeetakoek, bai bestelako erakundeek, eragin esparru ezberdinak izan arren, antzeko ondorioak atera zituzten **Geurien be bai** hitzarmenaren inguruko balorazio orokorra egiteko orduan.

- Elkarte batzuetan besteetan baino euskara gehiago egiten da.
- Geurien be bai euskara bultzatzeko bitarteko bat da.
- Badaude talde batzuk hitzarmena sinatu dutenak baina gero ez dute betetzen.
- Zailtasunak daude. Ikastolako umeek ez dute euskaraz hitz egiten eta entrenatzaileek arazoak daukate kontu teknikoak euskaraz azaltzeko orduan.
- Euskaraz hitz egitea eskubidea da eta ez beharra. Ondorioz jendeak gaztelaniara jotzeko joera dauka.
- Erdaldunak agertzen direnean gaztelaniara pasatzen gara.
- Euskara kalera zabaldu behar da.
- Arrain azokarekin lotzen dut GEURIEN BE BAI, latarekin. Jarraipena egin beharko litzaioke hitzarmenari. Dena den, garrantzitsua da urtean behin euskara bultzatzeko elkarte guztiak batzea.
- Gu berriak gara eta ikasten gaude. Dena den harreman zuzena daukagu euskara zerbiztuarekin. Zer edo zer behar badugu Maiterengana jotzen dugu.

Aurrera egiteko aukera interesgarriak zeudela ikusita, eta han esandako guztiak kontuan izanda, **martxan jarriko ditugun ekintzak** hauek izango dira:

- Geurien be bai egitasmoa merkatariari zabaltzea.
- Arrain Azokako ekitaldia egokitzea: gutxieneko konpromisoak bete eta hizkuntza-egoeran aurrera egin dutenek parte hartuko dute.
- Herrian euskararen alde lan berezia egin duen elkarte edo pertsonari sari bat ematea.
- Elkartei baliabideak eskaintzea.
- Komunikazio-ekintzekin jarraitzea.
- Kirol arloko diagnostikoa eta diseinua egitea.

Horiek guztiak aintzat hartuta, 2009-2011rako egitasmoa laster jarriko dugu martxan. Beraz, adi labetik ateratako berri freskoak noiz etorriko!



Bermeotarren izana izenetan

Zelan idatziko dut, Ander Deuna edo San Andres? Almika edo Almike esango dut? Zer izen dauka gure aitita-amamen baserriak? Burgorako bidea zein auzotan zehar doa? Galdera horien guztien erantzuna eta askoz ere gehiago topatzea erraza da, www.bermeo.org/toponimia klikatu eta bertan aurkituko dugu idatziz eta ahoz gure herriko leku-izenak zelan erabili. Izenak izana adierazten duelako, Bermeoko izen guztiak bertan daude, erabili nahi duten guztien esku.



Merkataritzan abantailak euskaraz datoz

Bermeoko 475 establezimendutan Udalaren laguntzen berri zuzena jaso dute abendutik aurrera. Kartelak, hiztegiak, fakturak, erroztugetarako laguntzak... eskatzeko aukera izan dute eta harrera ona be ona izan da. Euskera Sailean 1.500 eskari inguru jaso dira, kanpaina amaitu barik badago ere. Bermeoko merkatariek abantailak euskaraz datozela argi esan dute.

TELP tailerra (Taller d'Espai Lingüístico Personal)

Sarri euskaraz berba egin izanagatik erantzun desegokiak entzuten ditugu: edukazio txarrekoa izatea, denok gaztelaniaz badakigu zertarako euskaraz... Eta zer egiten dugu holakoetan? Egia da euskaldunak edukazio txarrekoak garela? Bada, Telp tailerrean galdera hauen erantzuna bilatzen ikasiko dugu. Laster egingo den tailer honetan parte hartzeko izena eman nahi duenak Udaleko Euskara Sailera jo dezake.

KIROLA



Euskaraz denok irabazle!

Jakina da kirola egitea osasun fisikorako ona dela eta geure bizitzako gainontzeko arloetan oreka lortzen laguntzen duela.

Horren esparru zabalean eragiten duen ekintza norberaren hizkuntzan egiteak garrantzi berezia dauka eta, askotan, ezjakintasuna edo ohitura faltagatik, futboleko, gimnasia edo bestelako ariketa fisikoak egiten ari garenean, erdararako joera daukagu. Herriko kirol elkarte nagusiek hausnarketa honekin bat egiten dute eta behin baino gehiagotan euskaraz lan egiteko dauzkaten zailtasunak helarazi dizkigute.

Arrazoi horrengatik, Bermeon hizkuntza normalkuntzari begira egiten ari garen

lanaren barruan, kirol munduak leku berezia hartu behar du.

Zentzu horretan, 2009ko erronkei begira, Geurien be bai egitasmoak, kirol elkarteekin eta Kirol Patronatuarekin elkarlanean, kirola euskalduntzeko hainbat ekimen eta proiektu aurrera aterako ditu. Besteak beste, kirol hizkuntza diagnostikoa osatuko du, elkarte eta entrenatzaileei laguntza teknikoa emango die, motibazio lanak egingo ditu edo komunikazio lana prestatzen lagunduko du. Horrela, euskara eta kirolaren artean dagoen langan, zubia eraikitzen hasiko gara arlo honetan ere.

Entrenatzaileok ere jokoan

Asko dira kirol ekintzetan parte hartzen duten haur eta gazteak eta beraientzat entrenatzaile eta monitorea ere, baita hizkuntzaren erabilerrari dagokionean ere.

Azken finean, entrenatzaile eta monitorea dira hizkuntza markatzen dutenak. Entrenamenduetan nagusiok euskaraz egiten badugu, haur eta gazteen artean euskaraz hitz egiteko ohitura zabalduko da.

Euskaraz aritzeko ahalegin txikia eginez, emaitzak oparoak izan daitezke. Horrela, monitorea edo nagusiaren kirol saioretako hizkuntza zein den, ume eta gazteena ere huraxe izango da. Erreza da azalpenak eta aginduak euskaraz ematea (Euskaltzaindiko inor ez dugu izango atzean falta adierazteko!).

Denok egin dezakegu zerbait euskararen alde.



DITXU OYENARTE Artza Pilota Elkartea

“Bermeon kirola eta euskerea bat datozala pentsetan dot”

Zeure burua aurkeztu eizu, mesedez.

Ditxu Oyenarte, bermeotarra eta Artza Pilota Elkarteko entrenatzailea. Umek “maixu” deitzen deuste.

Kirola eta euskerea. Zer dakartzue gogora berba bi honeek? Bermeon kirola eta euskerea bat datozala pentsetan dot, gaur egun umek eskolatik datoz euskerea ikasita eta.

Entrenamenduak euskeraz egiten dozue? Zein erraztasun / zailtasun daukatzue?

Berba gehienak euskeraz erabiltzen doguz. Adibidez, pilotan, sarri, “falta” esaten dogu, baina gehienetan “txarra”.

Bardin izaten da gurasoekaz eta umeakaz? Gaztetxuakaz?

Elkarteko Juntan ama erdaldun bakarra dago, eta orduan gaztelaniaz egiten doguz batzarrak. Alkarrizketak hobeto ulertzeko gaztelaniaz egiten doguz. Umeakaz euskerea erabiltzen dogu, baina 14 urtetik gorako gaztetxuek gaztelaniarako joera handiagoa daukie.

Herriko kirol taldeetako egoera, euskerea erabiltzeari jagokonez, zelan ikusten dozu?

Kirol patronatuagaz batzarrak egiten doguzanean, beti dago baten bat euskeraz ez dakiana; orduan, gaztelaniaz egiten doguz.

BAIETZ BI ENPRESEK EUSKARA-PLANA EGIN BEMEON!



Geurien be baik badu bere lanen artean, herriko enpresetan euskara-planak egitea, hau da, **enpresa barruan euskara gehiago erabiltzeko prozesuak** martxan jartzea. Horren berri emateko, urtarrian, herriko sindikatuetakoko ordezkariekin elkarte ginen: CCOO, ELA, LAB eta UGT.

Berataratu ziren guztiek ikusten zuten euskara gehiago erabil zitekeela euren enpresetan, bai langileen aldetik, bai arduradunen aldetik. Zailtasunak ere aipatu ziren: euskaldunzaharrek idazteko, euskaldunberriek bermeotarrak ulertzeko.. Baina argi geratu zitzaigun horiek guztiak gainditu litezkeela alde bietatik gogo apur bat badago.

Baina, zer da euskara-plana? Galdera hau egin genien berataratu zirenei eta hauek izan ziren erantzun batzuk:

- Euskara ikastea
- Euskaraz egitea, gutxien dakienari laguntzea
- Interesa egon behar da: ikasteko, egiteko
- Idatziz nekezago izan arren, egin leiteke
- Jarrerak landu behar dira; egin daiteke
- Euskaraz ez dakitenen jarrera ere aktibatu daiteke
- Euskaldunek berba eginez gero, ez dakienari laguntzen dio

Horrek badira, eta oraindik gehiago: enpresaren beharretara egokitutako prozesu planifikatuak dira euskara-planak.

Baina, zertuk hartzen dira aintzat?

- Euskara gehiago erabiltzeko lanak egitea: kafea hartzen dugunean, telefonoa hartzerakoan, oharrak idazterakoan...
- Euskararen presentzia handiagoa izatea: web gunean, etiketetan...
- Hizkuntzen erabilera eta presentzia arautzea: bertan, euskara eta gaztelania noiz eta zelan erabili; kanporako denean, bertako hizkuntzak aintzat hartzea (galegoa, katalanera, bestelakoak...)
- Euskaldunak euskaraz hobeto berba egiteko eta idazteko bitartekoak ipini, euskaraz ikasi gura duenari lagundu...
- Beste edozein hobekuntza-plan baten moduan tratatzea euskararen gaia. Hau da, kalitate kontuak, segurtasun gaiak...

Hortaz, 2009an herriko **bi enpresari euskara-plana egiten lagunduko diogu**. Plan horretan jasoko ditugu momentu honetan erakundean euskara zenbat dagoen eta zenbat erabiltzen den; baita, aurrera begira, egoera hori hobetzeko egin behar diren lanak zeintzuk izango diren zehazten lagunduko diogu.

Laster herriko enpresetako zuzendariekin elkartzen hasiko gara, gure asmoa zein den kontatzeko eta euskara-plana egitera gonbidatzeko. **Hordagoa jota dago**, nahi duenak har dezala.

BUSTURIALDEAN EUSKARA-PLANAK

- Arroitegi Fundazioa(Busturia)
- Toticaguena Supermerkatuak(Gernika)
- Bengozarra (Gernika)
- Serrats (Bermeo)
- AZTI-Tecnalia (Sukarrieta)
- Maier (Ajanziz)
- Gernika Garbiketak (Gernika)
- Busturialdeko Irrati Telebista

- ...

